

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. MINIJOBS-AK ERREALITATETIK HARATAGO
2. DEFLAZIOAREN AURKA, SOLDATA IGOERAK ETA POLITIKA SOZIALAK
3. PRESTAZIO SOZIALEN ESKASIAK JASOTZAILEEN KRIMINALIZATZEA
AREAGOTZEA SORTZEN DU
4. AHT: DIRU XAHUKETA ITURRI
5. KUTXABANKEN PRIBATIZAZIOA GELDITU ETA EUSKAL HERRIAN
ERROTUTAKO FINANTZA-ERAKUNDE BAT GARATZEA
6. KONTZERTU EKONOMIKOA BERRITZEAN, ZAHARRAK BERRI
7. PROPOSAMENA: "GRANDOLA VILA MORENA" VS TROIKA

1. MINIJOBBS-AK ERREALITATETIK HARATAGO

Dagoeneko "Minijobs" moduan ezagutzen direnak, lanaldi partzialeko kontratuak, Hego Euskal Herriko lan merkatuan gero eta presentzia handiagoa dute. 2013ko laugarren hiruhilabetean EAEan kontratuen %16,1a eta Nafarroan %18a suposatu dute.

Gertaera honek, gero eta pertsona gehiagok bizirik irauteko aldi berean bi lanpostu izatean zuzeneko eragina du. EAEan okupatuak %1,75ak bi lanpostu ditu, 15.000 pertsona inguru. Nafarroan, 6.000 dira, %2,4 suposatuz.

Hau da, enplegu egonkor eta lanaldi osokoaren portzentaia murrizten doa.

Enplegu partziala, prekarioa eta behartua. EAEan enplegu-aniztasunean dauen %50ak lanaldi osoan lan egiten dute, hori bai, %15,7ak borondatez eta %35ak behartua bestelako aukerarik ez egoteagatik. Nafarroan, borondatezkoak %13,6 dira eta behartuak %31,9.

Langabezia eta kontratu partzialak eskutik helduta doaz. Langabezia tasa handitzen den heinean, modu behartuan kontratu partzialak direla medio lan egiten duten pertsonen portzentaia ere handitzen da. Enplegu-aniztasun portzentaia gora badoa, kontratu partziala ere.

Minijobs-ek populazio osotasunean dute eragina, baina batez ere, gazte, emakume eta gero eta gehiago erretiratuak, pentsiodunei. Azken pentsio erreformek, pentsioa jasotzeko baldintzak gogortu eta iraunkortasun faktorea ezarri dutenak, (pentsioaren zenbatekoa eta eguneraketaren portzentaia jeistea) pentsiodunen pentsioen zenbatekoa gutxitzea suposatuko duenez, kasu askotan, eta aurrera atera ahal izateko pentsioaren kopurua lan batekin osatzeko beharra sortuko zaie. Hau da, horrenbeste goraiapatutako alemaniar eredia.

Orainarte egindako erreforma guztiek eskubideak murrizteko eta enpresen barne malgutasuna errazteko baino ez dira egin, populazioaren gehiengo txirotuz. Prekarizatzeko interesa dago eta hortik soldatak jeistea enplegu sortzen duelako teoria. Minijobs-ak prekaritatearen, soldata baxuen eta enplegu duina eta kalitatekoa ez sortzearen adibidea argia dira. Guztiak ez du balio!

Kalitatezko enplegua sortzeko, politikek, KPIz gaitzeko soldata igoerak, estaldura sozial duinak, gutxieneko soldata duina, lanaldi laburragoak soldata jeitsierarik gabe, aurrekontu eta zerga politikak errotik aldatzea, arlo publikoa garatzea eta ekoizko beharrezkoak dituelako aldarrikapenari eusten diogu.

2.- DEFLAZIOAREN AURKA, SOLDATA IGOERAK ETA POLITIKA SOZIALAK

Urtearteko datuetan espainiar estatuko KPIa joan den martxoan hamarren bat jaitsi zen. Are jaitsiera handiagoak izaten ari dira Bulgarian, Grezian, Zipren edo Portugalen. Europar Batasuneko KPIaren batez bestekoa %0,6ko igoera da. Ez da harrizkoa, horrenbestez, deflazioa izateko aukera aipatzea; honek prezioen jaitsiera orokor eta iraunkorra esan nahi du. Olivier Blanchard NMFko ekonomilari buruak esan du: "deflazio arriskua dagoela uste dugu", euroguneaz ari dela.

Esan ohi da fenomeno hau ekonomiarentzat arazo bat dela. Prezioak jaitsiko diren esperantzaz kontsumoa moteldu egiten da, eta berarekin batera jarduera ekonomikoa. Horrela krisiak okerrera egiten du. Deflazioa sorgin-gurpil bihurtzen da, eta etorkizuneko deflazioa eragiten du.

Ekonomilari ofizialek (hots, gaurko hondamendi ekonomikoa eta sozialera eraman gaituzten politiken aitzindariak) diote deflazioari ekiteko interesa-tasak jaitsi behar direla eta enpresei

likidezia eman.

Halere, kontua ez da hain sinplea. Lehenago aipatutako datuek erakusten dute Europar Batasunaren baitan gaur prezioen jaitsiera handiagoa dela doikuntza politikak gogorragoak izan diren lekuetan. Ez da harritzekoa, bestalde. Kupidagabe ezarri diren politiken ondorioz murriztu egin dira soldatak eta gizarte-prestazioak (pentsioak, langabezia edo bestelako prestazioak). Kontutan izan behar da ere lurraldeotan gertatu den enplegu suntsitze handia.

Herritarrak txirotzeko politika lazgarri hori dago deflazioaren erroan. Ezinezkoa da biztanleriaren zatirik handiena okerrago bizitzea eta, era berean, kontsumogaien prezioen igoera orokorra izatea. Argi dago oso lotuta daudela soldaten devaluazioa eta aurrekontuak zein eskubide laboral eta sozialak murrizteko politikak.

Beraz, deflazio arriskua Europar Batasuneko gobernuak ezarri dituzten doitze politika basatiaren beste ondorio bat da. Deflazio honi aurre egiteko ikuspuntu sozialetik biderik zuzenena soldatek aberastasunaren banaketan duten zatia handitzea da, baita aurrekontu-politika erabat aldatzea ere, lehentasuna emanaz politika sozialetako gastu publikoari (prestazio sozialak eta kalitatezko zerbitzu publikoak).

3.- PRESTAZIO SOZIALEN ESKASIAK JASOTZAILEEN KRIMINALIZATZEA AREAGOTZEA SORTZEN DU

Krisi egora irauteak gero eta pertsona zein familia gehiagok gizarte zerbitzuen eta prestazioen beharra izatera darama. Zehazki, EAEan apirilean, diru sarrerak bermatzeko errenta, baliabiderik gabeko familien gutxieneko beharrak betetzeko diru laguntza, 64.629 pertsonak jaso dute, aurreko hilean baino 439 gehiagok. 2009tik, 16.140an hazi da,

%33a. Jasotzaileen %60a (39.175) espaniar nazionalitatea dute, profila, emakumezkoa (37.676), 30 eta 50 urte bitartekoa eta hoietatik 12.000 baino gehiagok 65 urte bete dituzte, diru sarrera gabekoak edo pensio minimoak kobratzen duten jubilatuak dira.

Nafarroan, 2013an Gizarte Inkluzio Errenta 22.278 pertsonak, 9.472 familiek, jaso zute. 2014Rako Nafar Gobernuak egindako aurreikuspenaren arabera %10eko igoeraemango da, 10.500 familia suposatuz.

Datuak beraz, prestazio sozialen gain ere egoera sozio-ekonomikoaren eta lan merkatuan, pensioetan eta negozioak kolektiboan emandako azken erreformen ondorio latz eta zuzenen isla dira. Kezkagarriak, oso kezkagarriak. Baina, ze zentzutan? Kezkagarriak dira, diru sarrerarik gabe edo nahikorik gabeko familiak gero eta ugariagoak direlako, pobrezia gero eta hedatuagoa dagoelako, hauetako kasu askotan famili unitateko guztiak langabezia daudelako, famili asko diru-laguntza ez nahikoa zaienez elikagaien bankuetara joateko beharra dutelako. Gero eta gehiago dira beraz, HEHan ezinbesteko beharrak asetzeko beharrezko baliabideen premia dituztenak.

Kontrara, gobernatzen gaituzten agintari politikoentzat kezkagarria da gastuaren ikuspuntutik. Euskal zein Nafar Gobernuak gizarte zerbitzuak hobetzea baino, eredu, plan eta gestio modu berriak ezartzen dituzte beti ere, prestazioak jasotzeko baldintzak gogortu eta jasotzaileen kontrola areagotzeko helburuarekin. Horrela batzuk hasieratik sistematik at geratzen dira, edo behin onartuz gero. EAEan irizpideak aldiro berrikusten dira, eta Nafarroan aurkeztu berri da prestazioaren ikuskaritza eta jasotzaileek betebeharreko baldintzen jarraipena egingo duen plana.

Hori bai, iruzurra ekiditzea aitzakiarekin,

jasotzaileenganako izen galtzea eta kriminalizazioa guztizkoa da. Nafar Gobernuak aipatutako plana martxan jartzen du, izatez 2013an eskaera guztien % 0,7a iruzurrezkoak izan zirelako. EAEan Arartekoak emandako gomendioak alde batera uzten dira, arauditik kanpoko irizpide subjektiboak erabilia prestazioa etetzeen kasuetan hilabeteetan zehar kaltetuei sortutako indefensioa dela eta.

Zertaz ari gara iruzurraz dihardugunean? Itxurazko "irizur" hau ote da administrazioak lehentasunez jarraitu beharrekoa? Iruzur fiskalarekin dagoen aldea handia dirudi.

Murrizketa politikak gastua kontrolatzeko beharrreran ondorioa dira. Sindikatu eta eragile sozialak denbora daramagu partida hauen gutxitzeak salatzen eta honelako kanpaina eta praktikak behingoz bukatzea eskatzen. Kalitatezko zerbitzu publiko duinen aldeko defentsan eta administrazio publikoen benetako kudeaketaren alde.

4.- AHT: DIRU XAHUKETA ITURRI

Eusko Jaurlaritzak abiadura handiko trenaren (AHT) gastuari buruz hitz egiten duenean, beti esaten dute lanak dohainik irteten digula, guk dirua aurreratzen dugula eta gero Kupoaren bidez itzultzen digutela. Oparitu egiten digutela alajaina. Baina Ogasun Departamentuaren azken datuek kontrakoa esaten dute. EAEk eta Nafarroak Kupoa eta Aportazioaren bitartez Estatu osoko AHTen %6,24 eta %1,4 ordaintzen dutela esatea ahaztu egiten zaie. Eusko Jaurlaritzak 2008tik AHTan eginiko gastua 1.128 milioi eurokoa izan da eta hauetatik 255 milioi soilik itzuli dizkigute, Zapatero eta Rajoyren gobernuek oraindik 873 milioi euro dituzte ordaintzeko, AHTren gastuaren %77a. Ez da kobratu 2011tik, baina zati berrien lizitazioak aurrera darrai.

Beharrezkoa ez den gastu honen ondorioak aurrekontuetan ikusten ditugu

urtero EAEn. Obra erraldoi honi urtero aurrekontu gehiago zuzentzen zaio, hezkuntza, osasuna, gizarte laguntza eta gainontzeko gastu sozialetan egunero murrizketak dauden bitartean.

Dagoeneko ez dago zalantzarik AHT inon ez dela jasagarria ekonomikoki, sozialki edo ingurumen ikuspuntutik. Baina AHTaren linea ezberdinetako obren datu ekonomikoek, ekonomikoki eta sozialki errentagarria ez dela erakustez gain, kudeaketa iluna, iruzurra, dirua bidegabe erabiltzen dela eta diru publikoarekin jende asko aberastu dela erakusten dute.

Aste honetan albistea Adif eta Bartzelonako AHTaren zati bat eraikitzen ari den Corsan enpresako bederatzi pertsonen atxiloketa izan da. Fiskaltza Adifeko arduradunek Corsan enpresaren mesederako sei milioi euro bidegabe erabili zituzten ikertzen ari da. Corsanek 98 milioiko lizitazio prezioa zuen konkurtsoa 68 milioi eurogatik irabazi zuen. Ikertzen ari dira Adifeko funtzionarioek Corsanen lanak berez balio zutena baino prezio altuagoan zertifikatu zituzten. Gainprezio hauei esker enpresak diru publikotik sei milioi euroko zilegi ez zen onura izan zuen.

Madril-Bartzelona AHTaren lanak 7.550 milioi euroko aurrekontuarekin irten zuten konkurtsora eta 6.822 milioigatik esleitu ziren, %9ko beherapena. Baina bukaeran 8.996 milioi euro kostatu zen, %31ko gainkostua.

Corsan enpresa Gipuzkoa eta Bizkaiko AHTko lau zatiren esleipenduna da, Gipuzkoakoak Eusko Jaurlaritzaren menpe daude eta Bizkaikoak Rajoyren gobernua menpe. Lau zati hauetatik bada bat, Amorebieta/Etxano-Lemoa, oso bitxia. 2007an esleitu zen lehendabizikoz 45 milioi eurogatik (konkurtsora 61 milioiko balioarekin atera zuten) 2009an berriro atera zen konkurtsora Corsanek beste enpresa batekin zuen UTEa

desegin zelako. Berriro esleitu zitzaion Corsani, oraingoan 59,5 milioirengatik (konkurtsora 64 milioiko balioarekin atera zen). Lehiaketako prezioaren gainkostua %4koa izan zen, 2,9 milioi euro, baina esleipen prezioa %32 hazi zen, 14,5 milioi gehiago. Proiektuak ez zuen prezioan neurritz kanpoko horrelako hazkunderik justifikatzen zuen aldaketarik izan. Bartzelonako AHTan irregulartasunak izan ziren garai berean pasa zen hau, esleipendun eta enpresa publiko berarekin. AHTaren esleitutako zatiak beste irregulartasun eta susmo dago ia. Bartzelonako adibidea bat gehiago da. Ezberdintasun bakarra aditzera eman izana da, eta gainera konpetentziako enpresa baten salaketak atera du argitara.

Honengatik eta beste arrazoi askorengatik, AHTaren zati guztiak geldiarazteko ordua da. Herritarron pobrezia areagotzeko eta bakarrik balio du, batzuk ahal duten beste diru publiko "hartzen" dutelako, gastu sozialaren kaltetan eta murrizketak areagotuz.

5.- KUTXABANKEN PRIBATIZAZIOA GELDITU ETA EUSKAL HERRIAN ERROTUTAKO FINANTZA-ERAKUNDE BAT GARATZEA

Mario Fernandez Kutxabaneko buruak iragarri duenez, bost urte barru Aurrezki-Kutxek (BBK, Kutxa eta Vital) soilik Kutxabanken %30 kontrolatzea nahi du, egungo %100aren aldean. Hots, gutxienik Kutxabanken %70 pribatizatu nahi du. Hori esanda, EAJko, PPko eta PSOeko arduradunek babestu egin dute asmoa. Aitzitik, ELAk agerian utzi du ez dela hori dagoen aukera bakarra, ezta joan den abenduan onartu zen legediaren baitan ere.

Kutxabank pribatizatzea erabaki politiko ezin larriagoa litzateke. Horrela burutuko lukete prozesu bat zeinetan nagusi izan diren gezurra, ezkutukeria eta debate zein parte hartze sozial eza.

Hortaz, ELAk honakoa eskatzen du:

· Pribatizazio prozesua gelditzea.

· Izan nahi dugun finantza-erakunde ereduari buruzko eztabaida soziala hastea, eta helburu horretara iristeko dauden aukerak aztertzea.

· Aipatutako eztabaida sozialaren ondoren, Kutxabanken eredia herritarrek bozkatu beharko lukete erreferendum batean. Guztioi axola zaigu. Horren erabaki garrantzitsua ezin da elite politiko eta ekonomiko txiki baten esku utzi.

· EAEko Aurrezki-Kutxen bankarizazioa bertan behera uztea. ELAren apustua hasieratik izan da Aurrezki-Kutxak mantentzea.

· Kutxabaneko langileen baldintzak euskal esparruko hitzarmen kolektibo batean arautzea.

Gizartean errotutako finantza-erakunde baten lehen helburua izan behar da herriaren beharrezko ekonomiko eta sozialei erantzuteko lan egitea. Alde batera utzi behar da jarduera espekulatiboa, baita espainiar estatuko enpresa handiei edo banku txarrari dirutzak bideratzea ere. Diru hori gurean inbertitu beharko litzateke, baina bertoko aurrezkiak beste norabait ari dira eramaten.

EBn dauden eredu desberdinek (Alemania, Norvegia, Holanda, Frantzia), eta EBko Finantza-Sistemari buruz prestatzen ari diren Zuzentaraua egiteko txostenek (Volcker rule, Vickers txostena eta, batik bat, Erkki Liikanen-en taldeak 2012ko urrian aurkeztu zuena) aukera jakin bat babesten dute: bere jatorriko lurraldean errotutako banku minorista, inguruko ekonomia erreolarekin engaiatuta dagoena. Hau da etorkizuna bermatzeko aukera iraunkor bakarra.

ELAk plazaratu duen jarrerak hainbat kritika jaso du, baina gehienek ez dute irakurri ere egin ELAk esan duena. Confebask pribatizatzeke asmoaren alde agertu da, eskatu ordez

Kutxabankek eta finantza-sistema osoak bazter dezatela enpresak itotzen ari den politika, kreditu urri, garesti eta baldintzatuaren politika.

EAJren posizioa, berriz, bereziki aipatu beharrekoa da. ELAren aurka gezurrezko salaketak egin ditu. Ez du ELAk asmatu Kutxabank pribatizatzeko asmoa dagoenik. Argitu beharreko kontua da Kutxabaneko kapitalaren zein zati geratuko den Aurrezki-Kutxen esku. Honetaz ez dute txintik esaten. Gizarte demokratiko batean ezin da onartu iritzia emateko eta eztabaidatzeko aukera ukatzerik. Kutxabanki buruz hitz egitean “ez dagokigun eginkizun bat” bereganatzen omen dugu. Bada, Confebaskek hitz egin dezake, baina ELAk ez? EAJk ELAr estigma ezarri nahi izan dio, sindikatuak bere txostenean dioena eztabaidatu ordez; ustezko helburu alderdikoak leporatzen dizkigu, baina hau arreta desbideratzeko saio bat besterik ez da. Ezin digute gai honetan -eta beste batzutan- parte hartzeko eskubidea galarazi, argudio barregarri batekin: “ez zarete hauteskunde politikoetara aurkeztzen”. Zein herritan bizi gara? Zer nolako kultura politikoa dute horrela hitz egiten duten arduradun politikoek? ELAk bere autonomia politiko betea aldarrikatzen du, Kutxabanki buruz ere iritzia plazaratzeko.

Kutxabanken pribatizazioa geldiaraz daiteke. ELA haren aurka mobilizatzen ari da. Eta gizartearen mobilizazioarekin iritsiko dugu ez egiteko hau ekiditea. Gure esku dago, eta egingo dugu.

6.- KONTZERTU EKONOMIKOA BERRITZEAN, ZAHARRAK BERRI

2014ko urtarrilean Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoak -zeina Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta EAEko hiru Foru-Aldundiek osatzen baitute- hainbat erabaki hartu zituen, besteak beste hauek:

- Kontzertu Ekonomikoa eguneratzea,

azken urteetan espainiar Estatuak ezarri dituen zerga-figura berriak sartzeko.

- Hurrengo bilera batean aurrekontu-egonkortasunari buruzko akordioak berrestea, hain zuzen 2013rako eta 2013-2016 epealdirako defizit eta zor publiko helburuak finkatzen dituztenak.

Kontzertu Ekonomikoa eguneratzea: arauak egiteko ahalmena baztertzen da

Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoak egindako akordioak dienez, azken urteotan Espainiako Gobernuak ezarri dituen zerga berriak (jokua, loteria edo argindarraren gainekoa) Foru-Aldundiek bilduko dituzte, baina aplikatzen den araudia espainiar Estatuak erabakitakoa izango da. Hots, zerga horien kudeaketa hitzartu da, baina ez eurei buruzko arauak emateko ahalmena. Loterien gaineko zergari dagokionez, PFEZaren zati denez, arauak propioak dira, eta bilduko dena sariei dagozkien atxikipenak izango dira.

Eusko Jaurlaritza eta Foru-Aldundiak saiatu dira sinetsarazten akordioari esker diru-sarrerera handiagoak izango dituztela, baina hau, gutxienik, zalantzan jar daiteke:

- Batetik, diru gehiago bilduko da zuzenean (100 bat milioi euro urteko, ELAn egin ditzakegun kalkuluen arabera).
- Baina bestalde, Kupoa kalkulatzekoan EAEk Estatu mailan zerga horiekin bildutako diruaren %6,24 ez du jasoko (urteko 110 bat milioi).
- Horrenbestez, kasurik hoberenean akordioaren ondorioz EAEko administrazioen diru-sarrerak handiagoak izango dira, baldin eta zerga horiekin aipatutako 110 milioiak baino gehiago biltzen badituzte. Edonola ere,

kopurua oso txikia izango da.

- Gainera, kontutan izan behar da diru gehien biltzeko aukera ematen duen zergari dagokionez (energia elektrikoaren produkzioaren gainekoa, %7an finkatua), berariaz adostu dutela estatuarentzako berme bat: zein administraziok dirua biltzen duen gorabehera, espainiar Gobernuaren finantzei ez die kalterik eragingo; hau azaltzeko diote zerga hori "sistema elektrikoaren kostuak finantzatzeko" erabiliko dela.
- Ondorioa argia da: EAEko administrazioen (hiru Foru-Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza) diru-sarreretan eragin erreala oso urria edo hutsa izango da.

Aurrekontu-Egonkortasuneko akordioak:
murrizten jarraitzeko adostasuna

lazko irailaren 12an Rajoyren Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak akordio bat sinatu zuten, erakundeek beren gain har zezaketen defizit eta zor publikoaren gehienezko maila finkatzeko.

Orduan iragarri zenez, 2013ko defizit muga BPGd-aren %1,2an geratzen zen, eta %1ean, 2014rako. Hots, espainiar Gobernuak erregimen komuneko Autonomia-Erkidegoentzat (Nafarroa eta EAEko ez beste guztiak) ezarri zuen muga berbera onartzen zen: Gobernuak beste erkidegoei inposatutakoari men egin zioten.

Kontzertuaren Batzorde Mistoaren akordioak dioenez, "aurrekontu-egonkortasunari dagokionez (...) datorren bilera batean Kontzertuaren Batzorde Mistoak aurreko ekitaldian gai honekiko sinatu ziren alde biko akordioak berretsiko ditu, zehazki 2013ko irailaren 12an iritsitako akordioak, 2013ko ekitaldirako eta 2014-2016 epealdirako defizit

eta zor helburuei buruzkoak".

Zer esan nahi du honek:

- Batetik, irailean Eusko Jaurlaritzak ezkutatu egin zuela benetan hitzartutakoa. Eusko Jaurlaritzak eta Rajoyren Gobernuak egindako akordioa ez zen 2013 eta 2014 urteetara mugatzen. 2015 eta 2016an ere izango du eragina, bere garaian horren berri eman ez bazen ere. Aurrekariak ikusirik, badirudi Eusko Jaurlaritzak onartu zituela espainiar Gobernuak gainerako Autonomia-Erkidegoei ezarritako irizpideak, hots: 2015erako BPGd-aren %0,7ko defizita eta 2016rako BPGd-aren %0,2eko superabita.
- Bigarrenik, hiru Foru-Aldundiek ere ontzat ematen dute Rajoyren Gobernuak finkatzea beren aurrekontuetan aplika dezaketen defizit publiko muga. Gainera, murrizte politikak areagotzea beste eraginik ez duten defizit muga batzuk onartzen dituzte (superabita, 2016ari dagokionez); honek langabezia, pobrezia eta gizarte-babes urria pairatzera zigortzen gaitu; desberdintasuna areagotzen duten politikak, alegia.

Ondorioak

- Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru-Aldundiek Kontzertu Ekonomikoa eguneratzeko sinatu duten akordioa ikuspuntu ekonomikotik hutsala da. Horretarako, Kupoak duen auzi larria alde batera uztea erabaki dute, izan ere, Espainiako Gobernuaren eta EAEko erakundeen artean ez dira kopuruari buruz ados jartzen, eta 900 milioi euroren aldea dago bi jarreraren artean.

- Akordioa kontrajarrita dago ELAk gai fiskaletan aldarrikatzen duen erabakitzeke ahalmenarekin. Kudeatzeko adostu diren zergak oso garrantzitsuak ez izanagatik, arauak emateko ahalmenik ez izatea eskumenak baztertzea da, eragin politiko handikoa.
- Akordioa hiru euskal indar politikok sinatu dute: EAJk (Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Aldundia), PPK (Arabako Aldundia) eta Bilduk (Gipuzkoako Aldundia). Halaber, PSE-EEK babestu du (alderdi honek EAJrekin zerga- eta aurrekontu-politikari buruz sinatu zuen akordioaren baitan). EAJren, PPren eta PSEren jokabidea bat dator Kontzertuaren inguruan azken hamarkadetan gertatu denarekin: batetik, izatez Kontzertu Ekonomikoa espainiar Estatuaren nahietara makurtzea ekarri duen politika; bestetik, Kontzertuaz baliatzea errenta altuen eta kapitalen zergak jaisteko.
- Berria da, aldiz, Bildu arrasto honetan sartzea, akordioari betoa ezartzeko aukera zuen arren, hiru Aldundien babesa beharrezkoa izanik. Gipuzkoako Aldundiak ezezkoa esan balu, akordio hau ez zatekeen indarrean sartuko. Ez da onargarria esatea akordio garrantzitsua ez zelako sinatu dutela. Izan ere, akordioak eragin politiko du, eta ikuspuntu ekonomikotik tamaina txikikoa izateak aurkako jarrera erraztu zezakeen.

Eusko Jaurlaritzak eta Foru-Aldundiek ontzat ematen dute Rajoyren Gobernuak ezartzea beren defizit eta zor publikoaren mugak, herritarrak txirotzeko politikak areagotuz.

7.- PROPOSAMENA: "GRANDOLA VILA

MORENA" VS TROIKA

Krabelinen Iraultzaren 40 urtez geroztik (1974ko apirilaren 25ean Grandola Vila Morenaren soinua seinale izan zen, Oliveira Salazarren diktadurak ezarritako egituren aurka eta gizarte eredu berri baten aldeko apostua egiteko), indarra eman zioten balorak gaur inoiz baino biziagoak daude.

Troikak Portugaleri azken hiru urteetan ezarritako austeritate neurriek, 78.000 milioiren "erreskatea" eta zorraren interesen ordaintzea, murrizketak baino ez dute suposatu, gizarte segurantzako prestazioen, pentsioetan, hezkuntzan, osasungintzan... eta Nazioarteko Diru Funtsak dagoeneko neurri berriak iragarri ditu: gutxieneko soldataren jeitsiera, jubilazio ez publikoak, irazpenagatiko kalteordainen gutxitzea...

Askatasuna, demokrazia, sozialismoa, enpresen nazionalizatzea, eskubide sozialen areagotzea gaur orduan bezain ozen aldarrikatzen dira. Erreskateagatiko kontraprestazioak Portugal egoera ekonomiko larrian utzi dute, langabezi tasa %15-20 bitartekoa da, emigrazioa altua, zerbitzu publikoen suntsitzea, bai pribatizatuz edo salduz, publikoa gaur apurra baino ez delarik.

Portugalek, Grezia jarraitzen du, eta Estatu Espainiarak eta Euskal eta Nafarroako gobernuak ere. Gaitzak Europa oso kaltetzen du eta horrela jarraituko du izaten. Baloreen krisi baten aurrean gaude, ereduarena, merkatuek beraien legea ezarri eta Troikak, estatuen sumisioarekin, herriak pobrezia zigortzen ditu.

Erraza da. Errezeta eta ondorio berdinek gutzientzat. Erreskatea, zorraren ordaintzeari lehentasuna, gastu sozialaren murriztea, prestazioen gutxitzea, lan harremanen ahultzea, erreformak, langabezia, pobrezia.

Baina ez dezagun herriaren indarra ahaztu, lortutakoa. Argi ditugu, langile-klasea, demokrazia, askatasuna, borroka, aldarrikapena, mobilizazioa, batzuentzat deserosoak diren kontzeptuak. Defendatzen jarraituko ditugu, gureak ditugulako, gure nortasuna ezerk baino hobeto isladatzen dutelako.

Gaurkotasunean Grandola Vila Morena Portugaleko protesta himno bat baino, borrokaren ikur bihurtu da, austeritate neurrien kontrako iraultza, Troikaren aurkakoa, elkartasunaren balorea gorai patuz herriaren eskubide eta askatasunen defentsaren aldeko oihua.